

JUAN MARI ARRIZABALAGA: HARRIAK...


Karmel aldizkariko aurtengo lehen zenbakian atera genuen J.M. Arrizabalaga jaunaren ekintza artistikoaren lan bat ("*Urolako*" *trenbideko geltokiak*). Haren beste lan bat argitaratzen dugu: "Harriak" eta harriekin ateratako formak...

"Naturaren funtsezko elementu, protagonista eta, aldi berean, ikusle mutu den Harria, gizakiaren bizitza eta gertaeren adierazpen ugarietan agertu da Historiaren garairik urrunetatik aurrera".


Artista autodidakta honek hainbat erakusketa indibidual nahiz kolektibotan parte hartu du eta bere lanaren oso zati garrantzitsu bat gure lurraren ondarea osatzen duten aberastasun arkitektoniko eta monumentalen bilduma inbentariatu batzuk osatzean oinarritu da.

Lumatxozko lan-sail ugari egin ditu eta, hauen artean, Donostiako dorreei buruzkoa, hiri bereko farolei buruzko azterlanak, garai bateko Urolako Trenbideko hamabi geltokiei buruzko bilduma, gure herrialdeko gaztelu eta dorretxeei buruzko lana etab.


Irudien (31 x 42 zm.) azpian datozen azalpenak, Arrizabalaga jaunarenak dira.




SOPELAURKO HAITZULOA. Orozko (Bizkaia). Lurrak gizakiaren organismoa indartzen duen bizi-indarra dauka eta, aldi berean, gizakia bere baitan hartzen du. Hori dela-eta, euskal gizakiarentzat haitzuloak, gizakientzako gelak ezezik, batzuetan ermita eta santutegiak eta ia beti jeinuen bizilekuak izan ziren. Horrela, euskal gizakiak ama lurrarekin izan zuen lehen kontaktua harri-sabelarekiko, hots, jeinu eta lamien santutegiarekiko harremana izan zen.




MEATZAKO BIZKARRAKO HARRESPILA. Artzamendi (Lapurdi). Jentilbaratze edo mairubaratze izenez ere ezagunak diren harrespilak Burdin Aroko errausketa-hilobiak dira. Joxe Miel Barandiaranen iritziz eta Jorge Oteizaren interpretazioaren arabera, "...bere izaeragatik natura abstraktua den bakarra, Ezereza Absolutu gisa -denetik aske-, ikusteko isiltasun huts baten azken zeroa".




ARRIZALAKO TRIKUHARRIA. Agurain (Araba). Legendak dioenez, sorginek gau batez beren goruen puntetan ekarritako harri handi batzuekin eraiki zen Arrizalako trikuharria. Herriaren sinesmenaren arabera, trikuharria jentilen etxe edo aterpea zen. Trikuharriak beti ekialdera daude orientatuta, eguzkia irte-ten den aldera alegia. Beraz, esnahi erlijiosoak dauka. Hortaz, trikuharriak bi gauza adierazten ditu: hildakoarentzako aterpea eta monumentu erlijioso sendo eta trinkoa.




ARRETXINAGAKO ERMITA. MARKINA (BIZKAIA). Monumentu megalitiko hau jentilen eta sorginen erlijioaren transizio edo kristautzearen sinbologia da. Kapera kristau batean bilduta dago eta oraindik ere sendatzeko ahalmenei edo ezkontzeko itxaropenei buruzko antzinako mitoak gordetzen ditu.




HILARRIAK ETA OTEIZAREN HILARRIA. Agina (Nafarroa). Disko-formako hilarria Euskal Herriko antzinako sinesmen, mito eta ohituren sisteman barne hartutako monumentua da. Hildakoa bizimodu batetik beste batera iragaten dela, bizi direnek dutenaren antzeko bizi-tza duela eta oraindik ere jaio zeneko etxe berekoa dela uste deneko ingurune batean, disko-formako hilarria hildakoen eta etxearen adierazpena da, formagatik nahiz agertzen diren zeinu eta irudiengatik.




SANTA MARIA LA REAL ELIZAREN ATARIA. Erriberri (Nafarroa). Arku polilobulatuek ataria isten duten moduan, atari honek izpiritueltasunaren sentimendurik sakonenak bere baitan jaso eta zerurantz jaurtitzen ditu geziak bezala. Harria multzo harmoniko bihurtzen da eta itxuraz grabitatearen legeei aurre egiten dien bultzada bertikal bat hartzen du ausardiaz.




LOIOLAKO SANTUTEGIAREN ZABALDEGIA. (Gipuzkoa). Izarraitzeko harriak Jesusen Konpainiaren sortzailea izan zen Loiolako San Inazioaren ohorez eraikitako Basilikaren atarirako ornamentazio eder bihurtzen dira. Jesusen Konpainiak kontrarreforma bultzatu zuen eta honen adierazgarri arkitektonikoak, hain zuzen ere, hemengo balastrada eta lorioen antolakera harmonikoan adierazita dauden forma barrokoak dira.




ABESTI GOGORRA V. CHILLIDAREN ESKULTURA. THE MUSEUM OF FINE ARTS. HOUSTON (USA). Chillidak abesti bihurtzen du harria, abesti garratz eta gogor alegia. Octavio Paz-ek dioen bezala, "...haize bat zuhaitz artean, forma eta masen himno bat. Abestia aire-eraikina da, lurretik hegal soinudun edo musika ibilgetu gisa sortzen dena. Espazio mutuak begiekin entzuten dugun abestia abesten du. Harria isiltasunez, espazioaren isiltasun zabalez egindako eskultura bihurtu da".




OTEIZAREN APOSTOLUEN FRISOA ARANTZAZUKO SANTUTEGIAREN FATXADAN. (Gipuzkoa). "Harrian dagoen hitza / harriaren erdiguneko hustasuna / berez luzatzen den zirkulu horizontala / borobila eta osoa guztiz / mihia deika / harri ahurraren artean altxatzen da / hitzaren koilara / silabak eguzkitan / erritmo kulunkatua isiltasunean / Oteizaren esku indartsuaren / hutsunean sakonduz" (Blas de Otero).



ARRETXINAGAKO PROBALEKUA. Markina (Bizkaia). "Jokoa helduaren ihardueraren dramatizazioa da" (Spencer). Horrela, euskal gizakiak harrobietatik harria ateratzeko eta zelaian lurra lantzeko lanak probaleku batean eszenaratu ditu, idiei protagonismoa emanez eta hauen indarraren "froga-harri" gisa bloke handiak erabiliz.



HARRIJASOTZEA. Schiller-ek dioenez, "gizakia jokoan da erabat gizaki". Hori hala bada, zalantzarik gabe euskal gizakiak aspalditik lortu du bizi-osotasun hori. R. Callois-en iritziz jokoa eta artea gehiegizko energiak sortzen ditu eta gehiegizko energia hori isladatzen deneko ariketa ludikoan gizakiak energia hori bere bizi-bilakaerako elementurik sendoenetarikoa batekin jarri behar du aurrez aurre: harriarekin hain zuzen ere.



SEGURAKO UDALETXEKO ARMARRIA. (Gipuzkoa). Izena harri egiten da; leinua, abizena, gerlaria, egitandia eta historia harri egiten dira. Harrian grabatuta, leinu eta herri baten nortasunak denboraren eta historiaren babesean iraungo du. Harriak gordeko du arbasoen leinua, eta historiara proiektatuko du arbasoen etxeetan nagusitzen den bitartean.